



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LARRINBE ETA LEZAMAKO KONTZEJUEN 1999-2000-2001-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Arabako Batzar Nagusietako Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Larrinbe eta Lezamako Kontzejuen kontuen eta jardueraren fiskalizazioa mamitu du.

Arabako Lurralde Historikoaren Kontzejuak 11/95 FAk arautzen ditu, lurralde izaerako toki entitate modura definitzen dituen, nortasun juridiko propio eta jarduteko gaitasuna dutenak; legemendeak udalerriak osatzen duena baino zabalera txikiagoko lurralde barrutia besarkatzen du.

Entitate hauen eskumenak 11/1995 Foru Arauaren 7. artikuluan daude arautuak eta udalerria baino esparru txikiagoko entitateen euren eskumenekin bat datoz; horien artean gailentzen dira euren ondarearen kudeaketa, basogintza barne eta hainbat zerbitzu publiko ematea. Fiskalizatu diren kontzejuetan, besteak beste, uraren bideratzea, banaketa, eta saneamendu zerbitzuak ematen dira; argiteria publikoa eta herribide, lorategi eta basa-ondarearen mantenua ere bai.

Arautegia betetzeari dagokionez, HKEEk ez ditu Larrinben huts adierazgarriak azaleratu. Lezaman, ordea, ez betetzeak azpimarratu dira aktak kronologikoki erregistratzeari dagokionez eta gastuen eta kontratazioetan jarraitutako prozeduren dokumentazio egiaztagarriari dagokinez.

Kontuei dagokienez, erakunde fiskalizatzaileak adierazi du Larrinberi dagozkion kontuek zuzentasunez islatzen dituztela urteko eragiketak, baina Lezamaren kasuan hutsak azaleratu dira, baso probetxamendu eta egindako gastuei buruzko dokumentazio ezaren ondorioz. Inbertsioen kasuan soilik egiaztatu ahal izan du HKEEk erregistratutako saldoen borondatea.

Fiskalizazio txostenak huts eta gomendioen atal bat besarkatzen du, orokorrak kontzeju guztientzat eta berariazkoak aztergai izan diren entitateentzat. Lehenengo multzoan kontzeju, udal eta koadrilei ezargarriak zaizkien eskumenak zehazteko beharra azpimarratu da, gastu publikoaren eraginkortasun eta zuhertasun irizpideei jarraiki.